# ZUZENDARITZA PROIEKTUA EGITEKO GIDA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# Zuzendaritza -proiektua egiteko gida

Dokumentuaren egileak:

Inmaculada Cereceda Rioja
Alfonso Fernández Martínez
Marcelino Hernández Garduño
Lourdes Iriarte Olarra
Jon López Armendariz
Eduardo Pérez Rodríguez
Kepa Portillo Sanz
Ismael Redondo Rojo
Lurdes Uriarte Uriarte

© Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

2012ko iraila

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako
Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:

<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

**Argitaraldia** 1.a, 2012ko iraila

**Ale kopurua** 1000 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

**Argitaratzailea** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 010010 – Vitoria-Gasteiz

# Indizea

**Lehenengo atala:** zuzendaritza-proiektua egiteko orientabideak

**1.** Sarrera 6

**2.** Definizioa eta zuzendaritza-proiektuaren ezaugarriak 9

**3.** Zuzendaritza-proiektuaren edukia 10

**4.** Zuzendaritza-proiektuaren egitura 13

**5.** Memoria edo zuzendaritza-proiektuaren gaurkotzea 30

**6.** Bibliografia 31

**Bigarren atala: tresnak eta txantiloiak**

# zuzendaritza-proiektua egiteko orientabideak

# 1. Sarrera

Hainbat azterketa eta ikerketaren arabera, eskola-zuzendaritzaren jarduna eraginkorra izango bada, beharrezkoa da proiektu bat izatea, bertan zehaztutako helburuak zenbateraino bete diren aztertzeko eta, azterketa horren eskutik, oinarri diagnostiko sendoa izateko etorkizunari begira zer hobekuntza egin erabakitze aldera. Proiektu horrek zehatz eta zorrotz jakin behar du zein den egoera eta ezaguera horretan oinarritu behar du; hau da, hezkuntza-komunitatearen kide batzuek eta besteek zer beharrizan eta aurreikuspen dituzten jakin behar du eta egoera hori hobetzeko zer arlo lehenetsiko den zehaztu beharko du.

Azterketa eta ikerketa horien arabera, ikastetxeetako zuzendaritzara iristen diren pertsonen hautaketa- eta ebaluazio-prozesuak zuzenean loturik daude zuzendaritza-proiektua izatearekin eta, horren arabera, denboraldi jakin batean esku hartzeko konpromisoarekin. Nolanahi ere, ikastetxe guztietan da garrantzitsua zuzendaritza-proiektua izatea, zuzendaritza hautatzeko prozesua edozein dela ere, zuzendaritza-funtzioa funtsezkoa baita zentroak bere helburu behinena bete dezan: eskaintzen duen hezkuntzaren eraginkortasuna eta zuzentasuna optimizatzea, hain zuzen. Testuinguru horretan, zuzendaritza-proiektuan hezurmamitzen dira zuzendaritzak ez ezik hezkuntza-komunitate osoak bere gain hartutako konpromisoak, agintaldiak irauten duen denboran hobekuntza hori lortzen laguntzeko.

Gainera, zuzendaritza-proiektu horri jarraituz, zuzendaritza taldeko kideek logikaz eta koherentziaz jokatu behar dute zentroaren hezkuntza-printzipioekin, ezarritako helburuekin eta lehentasunekin erabakiak hartzerakoan. Hain zuzen, printzipio, helburu eta lehentasun horiek guztiek gidatuko dute haien jarduna, zuzendaritza-funtzioan hain ohikoak diren eguneroko eskakizun eta presei eman behar zaien premiazko erantzunetatik harago.

Hurrengo orrialdeko grafikoan aipatzen diren zuzendaritza-proiektuaren osagaiak (*zentroaren diagnostikoa, hobetu beharreko arloen identifikazioa horren arabera proiektuaren helburuak zehazteko hartu behar diren erabakiak hartzeko, baliabideen antolaketa eta erabilera koordinatua, prozesuen jarraipena eta ebaluazioa eta emaitzak*) dira hezkuntza etengabe hobetzeko kulturaren oinarria. Eta, hain zuzen, kultura horrek aukera sortzen du jardunbide egokiak ezartzeko, berrikuntza bultzatzeko eta ikastetxe bakoitzeko ikasleen emaitzak optimizatzeko.




Zuzendaritza-proiektua definitzeko esaten dugu ikastetxeko bizitzaren plangintza eta antolaketa egiteko erreferentziazko kudeaketa-agiria dela, eta garatu behar direla uste diren estrategia eta ekintzak zehazten direla bertan (García Olalla eta Aguirregabiria Barturen, 2006). Estrategia horiek koherenteak izan beharko dute zentroaren jardueraren plangintza eta antolaketa egiteko baliabideekin (hezkuntza-proiektua, curriculum-proiektua, AJA...), eta helburu operatiboak eta ekintzak definitzearen bitartez zehaztu beharko dira urteko planetan.

Hurrengo orrialdeko koadroan agirien eta ikastetxeko planen arteko koherentzia islatu nahi izan da.


Ikastetxearen dokumentu-markoak
AJA-ROF
reglamento de organización y funcionamiento
IHP
PEC
hezkuntza proiektua
proyecto educativo
ICP
PCC
curriculum proiektua
proyecto curricular
Curriculum garapena
ZUZENDARITZA PROIEKTUA EGITEKO GIDA
Dokumentu estrategikoak [4 urte]
PLAN GINTZA ESKO LA ERE MUAN
planifikazio estrategikoa
elkarbizitza plana
tutoretza plana
hizkuntza proiektua
beste planak
Hizkuntza normalkuntz
Proiektu hirueled.
eskola 2.0
EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA
evaluación diagnóstica
Hobekuntza plana
IKASTETXEAREN URTEKO PLANA
PLAN ANUAL DE CENTRO
1. urtea
IKASTETXEAREN URTEKO MEMORIA
MEMORIA ANUAL DE CENTRO
2. urtea
3. urtea
4. urtea
Gogobetasun inkestak
Ebaluazio barne-prozesuak
Kanpoko ebaluazioak
Hezkuntza komunitatearen eskaera, behar edota proposamenak
Hezkuntza administrazio edota beste erakundetako eskaera-proposamenak
Emaitza akademikoak

## 2. Definizioa eta ezaugarriak

Aurkeztutako proiektua, zuzendaritza-jardunerako gidari edo ardatz izateaz gain, kargu hori hartzen duen pertsonak komunitatearen eta hezkuntza-administrazioaren aurrean onartutako konpromisoa adierazten duen dokumentua ere bada.

Horregatik, garrantzitsua da proiektuak komunitateko sektore guztien iritziak eta interesak biltzea, haien atxikimendua eta parte-hartzea sustatzeko proiektua garatzen eta ebaluatzen den denboran.

Horrenbestez, hauek dira zuzendaritza-proiektu baten **ezaugarriak**:

1] Ikastetxeko jarduera antolatzeko eta arautzeko tresna da, eta, alde horretatik, koherentzia gorde behar du irismen luzeko beste proiektuekin: hezkuntza-proiektuarekin, curriculum-proiektuarekin, ildo estrategikoekin, antolaketa- eta funtzionamendu-arauekin…

2] Izaera estrategikoa du eta ikastetxearen urteko plangintzan mamitu behar da urtero helburuen formulazio operatibo eta errealisten bidez.

3] Pertsona baten konpromiso esplizitua da (nahiz eta normalean talde batek lantzen duen) bere komunitatearen eta hezkuntza-administrazioaren aurrean, denboraldi jakin batean lortu nahi duena adierazteko.

4] Parte-hartzea, atxikimendua eta banakoen nahiz taldeen erantzukizunak hartzea sustatu eta bideratuko duten estrategiak aurreikusten ditu.

5] Baliabideak jartzen ditu, ardurak banatzen ditu eta ezarritako helburu operatiboak zenbateraino bete diren neurtzeko adierazleak zehazten ditu.

6] Ikasle bakoitzak ikasketetan zer hobekuntza egin duen bereizten du, horixe baita antolaketa eta curriculum aldetik proiektuan jasotako proposamenen helburu behinena.

7] Azken memoria batean adierazten ditu, besteak beste, agintal-dian erdietsitako lorpenen balioespena, zuzendaritza-proiektua zenbateraino gauzatu den adierazten duen balioespena, eta sortutako zailtasunen eta jasotako laguntzen deskribapena.

# 3. Zuzendaritza-proiektuaren edukia

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendaria hautatzeko eta lagun bakarreko beste aginte-organoak izendatzeko edo kargugabetzeko prozesua erregulatzen duen araudiak jasotzen duenez, zuzendari kargurako hautaketa prozesu batean parte hartzen dutenek zuzendaritza-proiektu bat aurkeztu behar dute eta hor zehaztu behar dituzte helburuak, jarduteko ildoak eta ezarritako ebaluazio-mekanismoak, eta, orobat, nor proposatzen duten ikastetxeko lagun bakarreko beste aginte-organoak betetzeko.

Hain zuzen, honako hauek dira zuzendaritza-proiektuaren osagaiak:

1] **Zer dakien ikastetxeaz**; hezkuntza-komunitateak behar eta espero duenaz; gizarte-, ekonomia-, kultura-, eta lan-inguruaz eta horrek ikastetxean duen eraginaz.

2] Zuzendaritza-proiektua amaitutakoan lortzea espero diren **helburuak zehaztea**. Baloratu egingo da planifikazioa estrategikoa izatea. Hala izateko, proposatutako helburuek koherenteak izan behar dute izaera estrategikoa duten dokumentuekin (hezkuntza-proiektua, estrategia-plana, curriculum-proiektua, antolakuntza- eta jarduera-araudia, eta urteko memoriak) eta hezkuntza-komunitateak behar eta espero duenarekin.

3] Oro har, helburuak lortzeko **zer egingo den (hots, jarduera-lerroak)**, eta zer baliabide beharko diren zehaztea. Hauek baloratuko dira: erantzukizunak erakunde osoan banatuta egotea, irakasleen artean talde-lana bultzatzea eta indartzea, giro eta bizikidetza egokiak lortzeko tresnak izatea, giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa eraginkorra, hezkidetzako filosofia sustatuko duen hezkuntza-eredua bultzatzea, emakume eta gizonen berdintasuna sustatzea eta ikasleen artean jokabide baztertzaileak eta genero-indarkeria prebenitzea.

4] **Nola garatuko den lidergo pedagogikoa**. Hauek baloratuko dira: irakaskuntza eta ikaskuntza hobetzeko curriculum-neurri egokiak bultzatzea; aniztasunaz arduratzea eta ezberdintasunak konpentsatzea; baliabideak izatea, irakasleek tutoretza eta orientazioa eman diezaieten ikasleei; familien parte-hartzea bultzatzea, zer erantzukizun duten jabe daitezen.

5] **Barneko eta kanpoko agenteen parte hartzea eta laguntza**. Baloratu egingo dira ikasle, familia, administrari, zerbitzuetako langile eta ikastetxeko langile guztien parte-hartzea eta konpromisoa bultzatzen dituzten neurriak. Baita beste ikastetxeekin, instituzioekin, zerbitzuekin, enpresekin eta inguruko pertsonekin elkarlana sustatzen duten neurriak ere.

6] **Ebaluazioa bultzatzea eta aldaketa kudeatzea** ikasleei ahalik eta hezkuntza hoberena emateko. Baloratu egingo da barne-ebaluazioak egitea aurreikusita izatea: ikastetxearen programena, antolakuntzarena eta funtzionamenduarena, hain zuzen ere. Era berean, barne- eta kanpo-ebaluazioen emaitzekin zer egingo den baloratuko da; izan ere, ebaluazio horiek curriculuma eta antolakuntza hobetzen laguntzen dute.

7] Aurkeztutako zuzendaritza-proiektua **nola garatuko den eta zer segimendu izango duen**. Baloratu egingo da mekanismoak aurreikusita izatea: batetik, zuzendaritzako taldekideen artean koordinazioa eta lanen banaketa egon dadin; bestetik, ikastetxeko beste gobernu-eta koordinazio-organoek proiektuaren eta haren garapenaren berri izan dezaten. Baloratuko da, halaber, adierazlerik badagoen ezarritako helburuak bete direla egiaztatzeko.

Sarreran adierazi dugunez, zuzendaritza-funtzioaren jarduna da ikastetxe baten martxan gehien eragiten duen aldagaietako bat, zuzendaritza hautatzeko prozedura edozein dela ere. Hori dela eta, aipatu berri ditugun zuzendaritza-proiektuaren osagaiak ez dira soilik araudiak erregulatutako prozeduraren arabera hautatutako zuzendaritzei bideratuak; aitzitik, eskola modu eraginkorrean zuzentzeko zehaztutako ezaugarriak dira, eta horrenbestez, baliagarri dira eginkizun hori proiektu batekin uztartu nahi duten zuzendaritza guztientzat.

Hurrengo orrialdeko taulan jasotzen dira zuzendaritza-funtzioaren jardunean lantzen diren dimentsioak eta dimentsio bakoitzarekin loturiko irizpideak. Hain zuzen, dimentsio horiek estu-estu loturik daude zuzendaritza-proiektu batean landu beharreko alderdiekin.

| DIMENTSIOAK | IRIZPIDEAK |
|---|---|
| **1**<br>JOMUGA ETA ESKU-HARTZE ESTRATEGIKOEN DEFINIZIOA | 1. Hezkuntza-komunitateko eragileek zer behar duten eta zer espero duten aztertzea eta ikastetxearen ingurua analizatzea. |
| | **2. Lerro estrategikoak zehaztea eta, behar izanez gero, bultzatzea, zuzendaritza-proiektuaren eta ikastetxeko proiektuen bitartez (IHP, ICP, urteko planak eta memoriak, AJA, eta ikastetxeko jarduera antolatzeko beste baliabide batzuk), antzemandako beharrei erantzuna emateko.** |
| | 3. Hezkuntza-erantzuna berrikustea eta egokitzea, ingurua aintzat hartuta, eta ikastetxea garatzeko aukerak bilatzea. |
| | **4. Ikastetxean giroa eta bizikidetza positiboak lortzeko bideak abian jartzea.** |
| | 5. Aurrez adostutako proiektuekin koherentzian zuzentzea ikastetxea, indarrean den legediaren arabera. |
| **2**<br>IKASTETXEAREN ZUZENDARITZA, ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDUA | 6. Irakasleen artean talde-lana sustatzea. |
| | **7. Zuzendaritza-taldearen lidergoa, erantzukizunak eskola-erakunde guztian banatzea, eta irakasleen inplikazioa eta konpromisoa bultzatzea.** |
| | 8. Beraien lanean hobetzeko prestatzea eta lidergo-portaera positiboak agertzea. Irakasleek prestakuntzan eta berrikuntzan parte har dezaten sustatzea. |
| | **9. Ikastetxeko baliabideak modu eraginkorrean kudeatzea eta administratzea.** |
| **3**<br>LIDERGO PEDAGOGIKOA | **10. Aniztasunaren arretarako neurriak sustatzea.** |
| | **11. Bitartekoak jartzea, irakasleek ikasleen tutoretza eta orientazioa bete ditzaten.** |
| | **12. Ikas- eta irakaskuntza-prozesuak hobetzeko beharrezkoak diren curriculum-neurriak bultzatzea.** |
| | 13. Ikasleen hezkuntzari buruzko informazioa ziurtatzea familiei, eta horretan beraiek ere ardura badutela sustatzea. |
| **4**<br>BARNEKO ETA KANPOKO AGENTEEN PARTE HARTZEA ETA LAGUNTZA | **14. Ikasleen, familien, eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen inplikazioa eta konpromisoa sendotzea, ikastetxeko antolaketan eta funtzionamenduan eragin dezaten.** |
| | **15. Inguruko beste ikastetxe, erakunde, zerbitzu, enpresa eta pertsona batzuekin elkarlana bultzatzea.** |
| | 16. Administrazioaren ordezkari izatea hezkuntza-komunitatearen aurrean; eta hezkuntza-komunitatearen ordezkari Administrazioaren aurrean. |
| **5**<br>EBALUAZIOA SUSTATZEA ETA ALDAKETA KUDEATZEA | 17. Ikastetxearen programei buruz eta antolaketari eta funtzionamenduari buruz barne-ebaluazioak sustatzea; eta kanpoko ebaluazioetan laguntzea. |
| | **18. Kanpo- eta barne-ebaluazioaren emaitzak erabiltzea, baliabide gisa, curriculumaren eta antolaketaren esparruan hobekuntzak egite aldera, ikasleei ematen zaien hezkuntza optimizatzeko.** |

***Irizpide-gakoak urdinez.***

# 4. Zuzendaritza-proiektuaren egitura

Ondoren, zuzendaritza-proiektu baten egitura aurkeztuko dugu. Nahiko malgua da egitura, ikastetxe mota guztietarako baliagarri izan dadin eta haien bereizgarriak jasotzeko ahalmena izan dezan. Zuzendaritza-proiektuaren osagaiak jasotzen dira egitura horretan, aurreko atalean aipatu eta azaldutako berak:



Ondoren, atal horietako bakoitza garatzen da, osagai egoki eta esanguratsuenaren arabera orientatuta eta zenbait adibide aurkeztuta[1].

1] **Sarrera.** Atal horretan proiektuaren arrazoia jasoko da, eta hezkuntza-komunitateari eta administrazioari jakinaraziko zaie zer arrazoirengatik aurkezten den hautagaitza eta zer zuzendaritza-eredu garatzeko asmoa dagoen.

Egokia da zuzendaritza-proiektuaren ezaugarri garrantzitsuenak zehaztea, besteak beste honako hauek: proiektu horren eta ikastetxeko hezkuntza-proiektuaren arteko koherentzia, helburuak zer arrazoiren arabera zehaztu diren eta zer garrantzi emango dion zuzendaritzak ikastetxean hartutako erabakiak ikasleen emaitzen hobekuntzarako izateari. Laburbilduz, hasieratik nabarmendu nahi den guztia jasoko da.

Azkenik, zuzendaritza-taldea nork osatuko duen zehaztuko da. Gutxienez, zuzendariaren kargua, ikasketaburuarena eta idazkaritza hartuko dituzten pertsonen izenak jasoko dira. Eta horrez gain, eman nahi den informazio esanguratsua zehaztuko da.

## 1.1. ADIBIDEA

*Hiru urtean aritu naiz lanean ikastetxe honetan eta horietan kargu hauek bete ditut: ..........................................................................................*

*Eskolan daramadan denboran ahalegina egin dut beti ikastetxeak proposatutako jarduera guztietan esku hartzeko: zikloko bileretan, klaustroetan, mintegietan, bilera pedagogikoetan eta prestakuntza-jardueretan modu aktiboan hartu dut parte, eta hitzaldi bat ere eman dut ......................-n aurreko zuzendaritza-taldearekin batera ikastetxean indarrean den sistema metodologikoari buruz.*

*Bat egiten dut guztiz eskolako printzipio metodologikoekin eta antolaketa-egiturarekin, horiek gabe ezingo luke-eta lan egin zentroa osotasunean hartzen duen sistema honek. Horregatik aurkezten dut zuzendaritza-proiektu hau.*

*Gaur egungo zuzendaritza-taldeak etorkizuneko ikuspegi nabarmenarekin zehaztu zuen proiektu hau. Nire asmoa da hori proiektu horren gainean lanean jarraitzea, aldaketa gutxik batzuk eginda, eta ikastetxean plan estrategikoaren bidez azken urteotan (2008-2012) ezarritako lehentasunezko ildoekin uztartzea lan hori.*

---

[1] Gida honetan aurkeztutako adibideak aurreko deialdietan aurkeztutako proiektuen zatiak dira. Hala, errespetatu egin da aurreko proiektu horien estiloa, proiektuaren izaera praktiko eta errealaz jabetzeko. Zuzendaritza-proiektu bat lantzen ari diren profesionalen gogoetak dira beren testuinguruan eta, alde horretatik, interesgarriak dira.

## 1.2. ADIBIDEA

Honakoa da bada, Ikastolako zuzendaritzarako aurkezten dugun taldea:

Zuzendaria: ……………………………………

Ikasketa Burua: ……………………………………

Idazkaria : ……………………………………

Badira, azken txanda honetan, bi ikasturte zuzendaritzan ari garela eta beste 4 egiteko konpromisoa hartuko dugu honakoaren bidez, orotara txanda honetan sei egingo genituzkeelarik.

Erantsian agertzen dugun bezalaxe bai zuzendari funtziotan neuk eta bai ikasketa buru funtziotan ……………… urte dezente eman dugu; honek ezer ziurtatzen ez badu ere, Ikastolaren ezagutza sakona dugula baiezta dezakegu.

Dekretu honek 4 urteetarako atakaren aurrean jarri gaituenean, ez dugu zalantzarik izan erronkari ilusioz heldu eta aurrera egiteko, are gehiago klaustroan beste inor aurkeztuko ez dela baieztatu dugunean.

Eskola komunitateko organo nagusien esanetara dagoen organo kolegiatutzat hartzen dugu guk zuzendaritza taldea, alegia, bai Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenean eta bai Irakasle klaustroetan hartzen diren erabaki eta bertan denen artean onartutako ildo eta proiektuen gidaritza lana bere gain hartuko duen taldetzat dugu geurea.

Honez gain, zuzendaritza taldeak gidaritza demokratikoa bideratzeko, hezkuntza komunitate osoaren, eta batez ere irakasleen partehartzea bermatu behar duela pentsatzen dugu. Ikastetxea, proiektu kolektibotzat jotzen badugu, proiektu horren aplikazioan eta garapenean parte hartze aktiboa izan behar dugu denok eta talde lanak pisu berezia hartu beharko du.

Norbere karguari dagozkion zeregin eta funtzioak oso presente edukirik ere, zuzendaritzaren TALDE IZAERARI ematen diogu guk garrantzia handia, izan ere, talde kohesionatu gisa jarduten saiatu ohi gara, erabakiak beti ere adostu eta aho batez hartzen saiatu ohi garelarik.

2] **Testuinguruaren diagnostikoa.** Testuinguruaren analisian garrantzitsua da bi alderdiak aintzat hartzea, kanpokoa eta barnekoa. Ikastetxearen inguruak eta zentroaren funtzionamendurako garrantzitsuak diren adierazleek osatzen dute kanpokoa: ikasleen ezaugarriek, familien parte-hartzeak, tokiko erakundeekiko harremanak… Barnekoan, berriz, hainbat ezaugarri hartu behar dira kontuan: batetik, ikastetxearen tamaina, instalazioen edota zerbitzuen ezaugarriak, eta bestetik, irakasleen eta ikastetxeko gainerako langileen funtzionamenduarekin loturiko alderdiak (koordinazioa, laneko giroa, prestakuntzako jardueretan parte-hartzea, ekimenak eta berrikuntzak…), eta ikasleen ikasketa-emaitzen analisiarekin, beste barne-ebaluazio batzuekin, halakorik balego, eta kanpoko ebaluazioekin loturikoak.

Oso garrantzitsua da alderdi bakoitzean ikastetxeak ondo funtziona dezan lagungarri diren elementuak identifikatzea, baita hobetu beharrekoak ere. Proiektuan zehazten diren helburuekin lotuko dira azken horiek.

## 2.1. ADIBIDEA



…………………… ikastetxe publikoa …………………… -n dago eta hezkuntza aldetik udalerrian dagoen eskaintza bakarra da, hala sare publikoan nola pribatuan. Udalerria maila ertainekoa da gizarte eta ekonomia aldetik, eta gaztea: herria asko hazi da azken urteotan eta horren eraginez ikasleen kopurua hazi egin da zentroan.

Bestalde, pedagogia aldetik ikastetxe dinamikotzat har daiteke: metodologia berritzailea du …………………… eta etengabe hobetzen ari da, gainera, Hezkuntza Sailak horrela ziurtaturik. Horren adierazle, Sailaren beraren zenbait proiektu pilotu landu ditu, hala nola ……………………………………………

Horrenbestez, esan dezakegu Hezkuntza- eta Curriculum-Proiektu oso landua duela ordezkatzen dugun zentroak eta irakasle guztiek parte hartzeko bidea luze-zabal jorratu duela. Bide horretan administrazioaren aldetik beharrezko aholkularitza eta prestakuntza jaso dugu uneoro.

## 2.2. ADIBIDEA

47 pertsonek osatzen dute ikastetxearen klaustroa eta horietatik %72k behin betiko destinoa du. Alde batetik, finkotasun horri esker aukera dago ikastetxean jarduera-ildoak bermatzeko, baina, bestetik, sortzen diren aldaketen eraginez beharrezkoa da sartzen diren irakasleei harrera egiteko prozedura bat ezartzea, era horretara eraginkortasun handiagoz has daitezen zentroan eta langile berriak ikastetxearen proiektuetara atxiki daitezen.

Familien parte-hartzea eta atxikimendua ez da nahiko genukeen bestekoa. Ikasturte hasierako bileretara guraso gehienak biltzen dira, baina gerora zuzenean deitzen zaienean baino ez dira etortzen edota beren seme-alabek kalifikazio oso onak lortzen ez dituztenean.

Diagnostikoko ebaluazio-probetan lortutako emaitza akademikoak nahiko onak dira. Alabaina, ISECen informazioaren arabera, ikastetxeak ikasleen emaitzak hobetzeko eskaintzen duen "balio erantsia" espero zena baino apalagoa da. Era berean, departamentu didaktikoek ikasleei buruz eginiko ebaluazioaren emaitzak aztertuta, datuek diote, batez beste, DBHko ikasleen %30ek ez dituela ikasturte bakoitzeko ikasgai guztiak gainditzen.

Hobetu egin behar da irakasle taldeen eta departamentu didaktikoen arteko koordinazioa. Hain zuzen, azkeneko ikasturteetan hainbat familiak erreklamazioak aurkeztu ditu beren seme-alabak ebaluatzeko eta sustatzeko irizpideak direla eta ez direla.

## 2.3. ADIBIDEA

Testuinguru geografiko eta sozio ekonomikoan agertu dugun bezalaxe auzoetan errealitate ezberdinekin topatzen gara, ondorioz, ikastetxea egoitza bakoitzean ematen den errealitatea ere, ezberdina dugu faktore anitzengatik.

Badira jada 4 ikasturte irakasle ekipoak leku batean zein bestean finkatu nahi izan genituela eta pixkana egoitza bakoitzera egokituz joan gara, bata eta bestearen arteko ezberdintasun eta beharretara egokituz, alegia.

Esan behar da bederen, azken 5 urte hauetan gure ikastetxea nabarmen hazi dela: auzo batek 11 unitate ditu une honetan eta besteak, berriz, 22 unitate: 33 orotara. (Egun, duela 5 urte baino 11 unitate gehiago ditugu). Bigarren hau ez da guztiz garatu oraindik ere eta datozen 4 ikasturte hauetan gutxienez 25 unitate edukitzera iritsiko da.

Hazkunde azkar honek zera ekarri du, besteak beste, kudeaketarako gero eta zama handiagoa: 2 errealitate ezberdin, 2 udalerri, baliabide materialen bikoizketa, askotan proiektuak bikoiztu beharra, Auzo batetik besterako irakasleriaren etengabeko joan etorriak, koordinaziorako gero eta zailtasun handiagoak eta abar luzea. Guzti honetatik eratortzen da Ikastetxearen egiturarekin aurrerago planteatutako helburu eta ekintzak (1. atalean).

Ikastetxearen hazkundearekin jarraituz bada aipagarria den beste ondorio bat ere: pasa den ikasturte arte irakasleriaren %70a ikastetxerako "berria" eta behin behinekoa zen, irakasle klaustroaren halako behin behinekotasunak eta ikasturtez ikasturterako aldaketak dakarren guztiarekin. Badirudi hala ere, amaiera datorkiola irakasleriaren behin-behinekotasun horri, izan ere 8 izan ziren iaz lehiaketara atera ziren plazak eta beste 7 aurten aterako direnak, horrek fijazio sistema berriarekin batera, klaustroari egonkortasuna emango dionaren esperantzarekin gara.

Irakasleriaren egonkortasunarekin jarraituz ezin dugu aipatu gabe utzi horrek ikastetxearen proiektu pedagogiko eta bereziki metodologiarekin duen lotura estua. Curriculum berria martxan dela kontuan harturik eta batez ere gure ikastetxeko oinarri metodologikoetan (Haur Hezkuntza, 1./2. mailetan batez ere) berezitasun nabarmenak daudela kontuan harturik (zirkulazio librea deritzogun metodologia), ezinbestekoa deritzogu irakasleriaren formazioaren inguruan ahalegin berezia egitea eta horretarako geure metodologiaren jabe diren irakasle finkoen laguntza ezinbestekoa suertatzen ari da.

Hemendik eratortzen dira Irakasleriaren 3.3. puntuan planteatzen diren helburu eta ekintzak.

## 2.4. ADIBIDEA

............................................ Ikastetxe Publikoak hezkuntza- eta curriculum-proiektu oso zehaztua du. Urteak dira ikastetxeen sare batean sartzea erabaki zuela. Ikasleak, ikasle guztiak, izan dira gure abiapuntu, baita parte-hartzea eta oinarrizko baldintzak etengabe hobetzea ere, sistema metodologiko horrekin aurrera jarraitzeko.

Ikastetxearen urteko planak eta memoriak eguneroko beharrizanetan oinarritzen dira eta horrek konfiantza sortzen du eskola-komunitatearen aurrean. Era horretara esan dezakegu irakaskuntza – ikasketa prozesuetan parte hartzen duten guztiak, irakasleak eta besteak, gogoeta-, hobekuntza- eta aldaketa-prozesu etengabean daudela.

Bestalde, nahiz eta eskola-komunitate honetako estamentu guztiekin batera lan egin, batzuetan banaka batzuen gain geratu izan da ardura, eta alderdi hori hobetu egin behar dugu. Kontuan hartu behar dugu aurreko ikasturtean horren gainean gogoeta egin dugula klaustroan eta gainerako antolaketa-egituretan. Urrats garrantzitsuak ematen ari gara bide horretan.

Ikastetxeak fedea du antolatzeko moduan, uste baitu prestakuntza jarraiturako eredu egokiena dela: klaustroak, mintegiak, departamentuak, paraleloak, zikloak, bilera pedagogikoak, ikasleen jarraipena, etab. Parte-hartzean laguntzen eta bakoitzaren indibidualtasuna kontuan hartzen, uste dugu aberastu eta hazi egiten garela, hala profesional modura nola pertsona modura.

Ikasleak parte hartzearen aldekoak gara, beste ideiak batzuk onartzearen aldekoak, kritika eraikitzaileak beharrezkoak direla jakitun gara, baina, hala ere, ohartzen gara hobetu egin behar dugula gatazkak konpontzeko arloan, eta horretarako, nork bere iritzia eman behar duela eta eskolako estamentu guztietan (familia, garraio, ikasle, irakasle, etab.) hartu behar dugula parte gatazka horiek konpontzeko prozesuan. Horregatik uste dugu horixe dela landu beharreko beste esparruetako bat. Martxan jarri diren proiektuen asmoa eta zehazki Bizikidetza egitasmoarena da esparru hori garatzen laguntzea, arlo horretan oraindik ere bide luzea baitugu egiteko.

Kudeaketaren arloa, neurri handi batean, zuzendaritza-taldearen esku geratzen da, eta, horrenbestez, gainerako irakasleak ardura handiagoz jardun daitezke hezkuntzari loturiko alderdietan. Arazoren bat sortzen bada edo erabaki garrantzitsuren bat hartu behar bada, guztion parte-hartzea eskatzen da eta egiazta dezakegu bakoitzak ahal duen neurrian egiten duela bere ekarpena.

Oro har esan dezakegu laneko giroa atsegina dela. Nahiz eta inkestarik ez egin, ikastetxean aldi batean lan egiten dutenen iritzia da lan handia egiten dela, koordinazioa ona dela eta harrera ondo diseinatuta dagoela, baina zenbaitetan halako herstura ere nabaritzen dute beharrezko jotzen den hori guztia ezin dutelako lortu. Horregatik, buruan izan behar dugu ondo ari garela lanean baina beti dagoela zer hobetu, segurtasuna transmititu behar dela lantaldean eta gogobetetze-sentsazioa sortu behar dela lortu dugunagatik. Ikasturte honetan inkestak banatu zaizkie familiei (lehen hezkuntzako 5 eta 6 urte), baita irakasleei ere (zikloak) beren iritzia jakiteko eta zer arlo hobetu behar den zehaztasun gehiagoz jakiteko.

Ikastetxeak hainbat baliabide ditu martxan maila pedagogikoan, kudeaketaren mailan eta harremanen mailan. Lagundu egin nahi izaten diegu Administrazioari, Udalari, Berritzegune egitasmoari eta beste ikastetxe batzuei, eta ahalegin handia egiten dugu zeregin horretan.

Ebaluazioaren arloan ere nabarmen hobetu dugu azken urteotan eta gure adierazleak finkatu ditugu: partaidetza, helburuak zenbateraino lortu diren, eraginkortasuna eguneroko jardunean... Ebaluazio horren emaitzak dira, hain zuzen, hobekuntza-planen abiapuntua. Beharrezkoa da bide horri jarraitzea.

## 2.5. ADIBIDEA

***i.- Eskola- eta gizarte-giroa***

*Institutuko **eskola-giroa,** oro har, ona da, nahiz eta DBHn hobe daitekeen. Giro lasaia lortu nahi dugu, eta bertan elkarrenganako errespetua, komunikazioa, partaidetza, ordena, txukuntasuna eta norberaren erantzukizuna izan beharko dira institutuaren ezaugarriak. Guraso, ikasle eta irakasleek bizikidetza-proiektuaren batzordean duten partaidetza eraginkorrak, tutoretza-ekintza egokiak eta etengabeko elkarrizketak izan behar dute nahi dugun eskola-giroa garatzeko esparruak.*

***Gizarte-giroa** eta ikastetxeko lan-baldintzak onak dira, baina hobetu egin daitezke. Horrela bada, guztion artean giza harremanak eta harreman profesionalak, pertsonen ekimenak eta erantzukizun partekatua zaintzea lagungarria da optimismoa eta lanerako gogoa sortzeko, eta horiexek dira lanean ongizate pertsonala izateko baliabiderik onenak.*

*Hala eta guztiz ere, gatazkak ohikoak dira erakunde guztietan, eta horrelakorik egonez gero guztiok hartu behar dugu geure gain, eta ahal den neurrian arautu […].*

***ii.- Emaitza akademikoak***

*Gure ikasleen errendimendu akademikoa ezberdina da hezkuntza-mailaren arabera, eta azken ikasturtean maila ezberdinetan izandako sustapen-indizeetan ikus daiteke hori (DBHn % 55, Batxilergoan % 40, Erdi mailako zikloetan % 72 eta Goi mailako zikloetan % 92). Emaitzak aztertuta nabaria da DBHko eta Batxilergoko emaitzak hobetzen saiatu behar dugula, metodologia berriak, curriculum-egokitzapenak eta helburu argi eta partekatuak ezarriz tutoretza-ekintzan.*

***iii.- Berrikuntza eta aldaketa***

*Kalitatezko hezkuntza izateko nahitaezkoa da ikaskuntza-sistema dinamikoak izatea, garatzen den inguruaren arabera egokitu eta aurrera egiten dutenak, eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak aldaketa teknologiko, soziokultural zein pertsonalek ekarri dituzten beharrizanei erantzuteko moduko bilakaera izango duela bermatuko dutenak. Ikaskuntza dinamikoak ezinbestean behar ditu berrikuntzak, curriculum-egokitzapenak, antolatzeko eredu berriak, etab. […].*

*Gaur egungo gizartean garrantzi handia duen aldaketetako bat teknologia berriekin lotutakoa da. IKTen erabilera aurreratua egiteko moduko baldintzak ditugu: ikastetxeko txoko guztietara kable edo uhin bidez sartzeko aukera ematen duen **azpiegitura** […] eta, azkenean, aipatutako teknologiekin gero eta trebatuago dauden eta bai irakaskuntza-kudeaketan eta baita hezkuntza-jardunean ere teknologia horiek erabiltzeko jarrera baikorra duen **irakasleen taldea**.*

*Baldintza horiek pizgarria dira IKTen erabileran **jauzi kualitatiboa** emateko, hezkuntza-jardunean eta geure metodoetan erabiltzen ditugun materialen artean sartzeko. Gure asmoa da informazio aberats eta egiazkoagoa zabaltzea ikasleen artean, ikasketa-gaien zati handiago eta hobeak hurbilduz, eta are garrantzitsuagoa dena, ikasleen ikaskuntzak hobetzea eraginez: izan ere, aukera ematen zaie **aktiboagoak** izateko, edukiekin elkarreragiteko, gehiago ikertzeko eta ikasten jarraitzeko gogoan eta ikasketetan partaidetza handiagoa izateko.*

***iv.- Barruko eta kanpoko komunikazioa eta partaidetza***

*Parte hartzea, ekarpenak egitea eta urteko planetan islatzen diren hausnarketak partekatzea gure ikastetxearen oinarrizko printzipioak partekatzen laguntzen diguten elementuak dira. Hezkuntza-komunitate guztia motibatuko duten harreman-portaerak garatzea eta jakinaraztea, eta lan-giro atsegin eta konfiantzazkoa bultzatzea dira lortu nahi diren eskola-emaitzak eta giro orokor egokia lortzeko bideak. Aipatzekoa da horrelako giroetan egiten diren ekintzek ahalik eta adostasun eta partaidetza handiena izan nahi dutela, azken emaitza zabal onar dadin eta ekintza horiek gauzatu ahal izan daitezen.*

3] **Helburu nagusiak zehaztea.** Helburuak zehazterakoan diagnostikoan antzemandako beharrak eta gabeziak hartuko dira kontuan. Gainera, komeni da helburuak dagokien dimentsioarekin uztartzea. Zehazki, bost dimentsio bereizi dira zuzendaritza-funtzioa betetzeko.

Hala, esaterako, antolaketari, hezkuntza-proiektua eta curriculum-proiektua gaurkotzeari, AJAri, bizikidetzari eta abarrei buruzko helburuak "Jomugak eta esku-hartze estrategikoak zehaztea" dimentsioarekin uztartuko dira.

Besteak beste irakasleen arteko koordinazioa hobetzea, talde-lana bultzatzea, baliabideak eraginkortasun handiagoz kudeatzea eta abar xede duten helburuak "Ikastetxearen zuzendaritza, antolamendua eta funtzionamendua" dimentsioan jasoko dira.

Aniztasunaz arduratzea, metodologian aldaketak egitea, programazioak eguneratzea, tutoretza funtzioa indartzea eta abar xede dutenak, berriz, "Lidergo pedagogikoa" dimentsioarekin lotuko dira.

Familien, ikasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen inplikazioa eta parte-hartzea bultzatzen eta beste ikastetxe eta erakundeekiko harremana sustatzen duten helburuak "Barneko eta kanpoko agenteen parte hartzea eta laguntza" dimentsioarekin uztartuko dira.

Azkenik, ikasleen ebaluaziotik eta beste ebaluazio batzuetatik ateratako "datuak" curriculumari eta antolaketari loturiko alderdiak hobetzeko erabiltzea bultzatzen dutenak "Ebaluazioa sustatzea eta aldaketa kudeatzea" dimentsioarekin uztartuko dira.

Bost dimentsio horiek funtsezkotzat jotzen dira zuzendaritza-funtzioa betetzeko, eta, beraz, pentsatzekoa da bost arlo horiek barnean bilduko dituen helburuak zehaztu beharko lituzkeela zuzendaritza-proiektu batek. Horrek adieraziko luke proiektua orekatua dela alderdi hauei dagokienez: lidergo estrategiko, banatu eta pedagogikoa betetzea, baliabideen kudeaketa eraginkorra eta aldaketaren kudeaketa. Alabaina, gerta daiteke, ikastetxearen azterketa diagnostikoaren ondorioz, zenbait dimentsio gutxi garatuta daudela antzematea, eta beste batzuk garatuago daudela ohartzea. Beraz, zer hobetu gehien duten dimentsioen aldeko apustu irmoa egitea litzateke koherenteena. Nolanahi dela ere, zuzendaritza-proiektu orok ikastetxeko ikasleen ikasketa hobetzeko helburuak zehaztu beharko ditu.

**Zuzendaritza-proiektuaren helburuen definizioa eta denboralizazioa**

| Dimentsioak | Helburu orokorrak | 2013-14 | 2014-15 | 2015-16 | 2016-17 |
|---|---|---|---|---|---|
| Jomuga eta esku-hartze estrategikoen definizioa | 1] AJA eguneratzea, Bizikidetza-planaren oinarrizko alderdiak jasota. | | | | |
| Ikastetxearen zuzendaritza, antolamendua eta funtzionamendua | 2] Giza baliabideak kudeatzeko irizpideak lantzea, ikasleei zuzeneko arreta-ordu gehiago eskaintzea xedetzat harturik. | | | | |
| Lidergo pedagogikoa | 3] Ebaluazio-, sustapen- eta titulazio-irizpideak ikasturte hasierako gutunean eta ikastetxearen webgunean argitaratzea. | | | | |
| | 4] DBHn gai instrumentaletan erabilitako metodologia aztertzea eta hobetu beharrekoa hobetzea, xede hauetarako:<br>- Hizkuntza batean eta bestean komunikaziorako gaitasuna hobetzeko.<br>- Proiektu eta lan esperimentalak bultzatzeko. | | | | |
| Barneko eta kanpoko agenteen parte hartzea eta laguntza | 5] Kudeaketa arloan jardunbide egokiak dituzten enpresa, ikastetxe eta erakundeak identifikatzea, xede hauetarako:<br>- Haietara bisitak egiteko eta hartu-emanak sortzeko.<br>- Ikasitakoarekin ikastetxean hobekuntzak egiteko. | | | | |
| Ebaluazioa sustatzea eta aldaketa kudeatzea | 6] Ikasleen ebaluaziotik sortutako emaitzak eta diagnostikoa egiteko ebaluazioaren emaitzak sistematikoki aztertzea eta:<br>- Curriculumean beharrezko aldaketak ezartzea.<br>- Antolaketan beharrezko aldaketak egitea ikasketa-emaitzak hobetzen laguntzeko. | | | | |

| Dimentsioak | Helburu orokorrak | 2013-14 | 2014-15 | 2015-16 | 2016-17 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Jomuga eta esku-hartze estrategikoen definizioa** | **1]** Ikastetxeko giroa eta bizikidetza hobetzea. | | | | |
| **Ikastetxearen zuzendaritza, antolamendua eta funtzionamendua** | **2]** Azpiegituretan eta baliabide materialetan dauden beharrizanak identifikatzea eta kudeatzea gure Hezkuntza-proiektua kalitatez garatzeko. | | | | |
| | **3]** Garraio-zerbitzuan zer beharrizan dauden aztertzea, horiek hobetzeko proposamenak egitea eta ezartzea. | | | | |
| **Lidergo pedagogikoa** | **4]** Curriculum-proiektua berrikustea gaitasunen garapena aintzat hartuta. | | | | |
| **Barneko eta kanpoko agenteen parte hartzea eta laguntza** | **5]** Gure ikasleen hezkuntza-ibilbideko ikastetxeekin koordinaziorako prozedurak eta egiturak sortzea/hobetzea. | | | | |
| **Ebaluazioa sustatzea eta aldaketa kudeatzea** | **6]** Diagnosi-ebaluaziotik sortutako hobekuntza-planak lehenestea ikasleen emaitza akademikoak hobetzeko. | | | | |

4] **Oro har, helburuak lortzeko zer egingo den (hots, jarduera-lerroak), eta zer baliabide beharko diren zehaztea.** Helburu bakoitza, aurrez dagokion dimentsioarekin uztartua, aurreko atalean ikusi dugunez, berau lortzeko beharrezkoak diren ekimen eta zereginekin lotuko da. Oso garrantzitsua da jardueren eta ekintzen lehentasuna finkatzea, aurreikusitako ekintza guztiak ezin badira gauzatu, zein lehenetsi erabaki ahal izateko.

Arduradun bat izendatuko da ekintza bakoitzerako, eta beharrezkoak diren baliabideak, aurreikusitako denboralizazioa eta emaitzen adierazleak zehaztuko dira. Zehaztapen horiek guztiek sinesgarritasuna emango diete helburuei eta, batez ere, emaitzen adierazleek aukera emango dute helburuak zenbateraino bete diren neurtzeko eta balioesteko.

**Helburua** *Objetivo*

Gure ikasleen hezkuntza-ibilbideko ikastetxeekin koordinazio-prozedurak eta -egiturak sortzea/hobetzea:

- batetik besterako pausoa errazteko.
- tutoretza- eta orientazio-lana errazteko (ikasleei buruzko informazioa transmititzea, taldeak osatzea, laguntza-beharrizanak...).
- hezkuntza arloan eginiko esku-hartzeetan haien arteko elkarlana eta koordinazioa bermatzeko.

| **jarduerak**<br>*actividades* | **arduraduna-agenteak**<br>*responsable y agentes* | **denboralizazioa**<br>*temporalización* | **baliabideak**<br>*recursos* | **Jarraipen/ Lorpenaren adierazleak**<br>*Indicadores de proceso y de logro* |
|---|---|---|---|---|
| Ikastetxeetako zuzendarien bilera koordinaziorako egiturak eta prozedurak sortzea proposatzeko. | **Zuzendaria** | Bigarren ikasturtea, lehen hiruhilekoa. | Proposamena arrazoitzen duten beharrizanak eta helburuak adierazi diren hasierako dokumentua.<br>Proposamenarekin loturiko araudia. | **Jarraipenaren adierazleak**<br>1. Lanerako plangintza bat ezartzea.<br>2. Akta bat honako hauek jasotzeko: eginiko ekarpenak, parte-hartzearen ehunekoa, erabakiak eta horiek martxan jartzeko egutegia. |
| Zuzendariek adostutako plangintzan ezarritako lansaioak egitea (jarritako helburuei begira beharrezkoak diren egituren inguruan eztabaidatzea eta haiek onartzea). | **Zuzendaria**<br>Ikasketaburua<br>Orientatzailea/Aholkularia<br>Egoki iritzitako irakasleak | Bigarren ikasturtea, bigarren hiruhilekoa. | Beste zonalde batzuetan indarrean diren ereduak-esperientziak.<br>Lanerako eta metodologiarako dokumentu bateratua ikastetxe bakoitzak horren gainean hausnartu dezan eta proposamenak aurkez ditzan.<br>Proposamenak laburbiltzeko agiria. | **Lorpenaren adierazleak**<br>3. Ibilbideko ikastetxeen ikasketa-buruek, edo horien ordezkariek, osatutako koordinazio-batzorde bat eratu da.<br>4. Prozedura bat ezarri da zentro hartzaileari eman behar zaion informazio esanguratsua, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta noiz eta nola aurkeztu behar den jasotzeko.<br>5. Eragindakoen %70ak (tutoreak, irakasleak, orientatzailea, aholkularia, ikasketa-burua...) adierazi duenez, jasotako informazioa lagungarria izan zaie ikasleak hobeto ezagutzeko, taldeak osatzeko eta interbentzio-plana egiteko. |
| Egiturak martxan jartzea eta pixkanaka-pixkanaka helburuak ezartzea. | Zuzendaria<br>**Egituren arduradunak** | Bigarren ikasturtea, hirugarren hiruhilekoa eta hirugarren ikasturtea. | Egitura bakoitzaren lan-plangintzak.<br>Eginkizunak sistematizatzeko sortuko diren materialak, txantiloiak, prozedurak...<br>Bileren aktak. | |

**Helburua** *Objetivo*

Ikastetxeko giroa eta bizikidetza hobetzea baldintza hauek oinarritzat hartuta:

- Hezkuntzako eragile guztien esku-hartzea (irakasle, ikasle, familia, irakasleak ez diren langileak...).
- Bizikidetzarako behatokia eta bizikidetza-plana sendotzea.

| jarduerak<br>*actividades* | arduraduna-agenteak<br>*responsable y agentes* | denboralizazioa<br>*temporalización* | baliabideak<br>*recursos* | Jarraipen/ Lorpenaren adierazleak<br>*Indicadores de proceso y de logro* |
|---|---|---|---|---|
| Irakasleak bizikidetzaren eta eskolako giroaren inguruan prestatzeko plana, horren bidez hausnarketa, alderaketa eta partekatzea sustatu ahal izateko (kultura partekatua). | Zuzendaritza<br>**Ikasketen buruzagitza** | Lehen ikasturtea. | Berritzeguneak.<br>Prestakuntza-proiektuen deialdia.<br>Hezkuntza Sailak landutako materialak.<br>Beste ikastetxe batzuetako esperientziak.<br>Sare-lana. | **Jarraipenaren adierazleak**<br>1. Plana aurreikusitako epean landu da.<br>2. Plana gauzatzeko materialak sortzea.<br>3. Tutoretza-saioen programazioa (hilero).<br>4. Ikasleek parte hartzeko egituren funtzionamendurako kronograma (hiru hilean behin).<br>5. Parte hartzeko prozedurak idatziz jasotzea (ikasturtearen amaieran).<br>6. Egindako saioen zerrenda.<br>7. Partaideek bete beharreko balioespen-galdeketa (kuantitatiboa eta kualitatiboa).<br><br>**Lorpenaren adierazleak**<br>8. Bizikidetzaren Behatokia sortu da. Bertan familiek, irakasleek eta administrazio- eta zerbitzu-langileek parte hartzen dute.<br>9. Ikasleen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko 201/2008 Dekretuan aurreikusitako bide alternatiboak erabiltzen dira ikasleen jokabideak zuzentzeko.<br>10. Bizikidetzaren aurkako jokabide larri-larriek behera egin dute (edo ez dira izan). |
| Tutoretza-saioak ikasleekin bizikidetzari buruz gogoeta egiteko, eztabaidatzeko eta bizikidetza modu berean ulertzeko: haien esku-hartzearen garrantzia, gatazkak, arauak... | Orientatzailea<br>**Ikasketen buruzagitza**<br>Tutoreak | Bigarren ikasturtea, lehen hiruhilekoa. | Tutoretza-saioetarako materialak.<br>Ikasleen parte-hartzea errazteko egiturak.<br>Parte hartzeko prozedurak. | |
| EHIGEren bidez bizikidetzari eta eskolako giroari buruzko prestakuntza-saioak eskaintzea eta lantzea familientzako eta ikastetxeko langileentzako. | **Zuzendaritza**<br>**Orientatzailea**<br>Ikasketen buruzagitza<br>EHIGE | Bigarren ikasturtea, bigarren / hirugarren hiruhilekoa. | Barneko edota kanpoko langileak, aztertu beharreko gaiaren arabera. | |
| Bizikidetzarako Behatokiaren eginkizunak eta osaera hedatzeko plana eta Bizikidetza-planaren helburuak lantzea. | **Zuzendaria**<br>**Orientatzailea**<br>**EHIGE**<br>Familiak<br>Ikasleak<br>Irakasleak<br>Irakasleak ez diren langileak | Bigarren ikasturtea, bigarren / hirugarren hiruhilekoa. | Berritzeguneak.<br>Hezkuntza Sailak prestatutako materialak.<br>Beste ikastetxe batzuetako esperientziak.<br>Sare-lana. | |

**Helburua** *Objetivo*

Azpiegituretan eta baliabidetan dauden beharrizanak identifikatzea gure hezkuntza-proiektua kalitatez garatzeko.
Hautemandako beharrizanak kudeatzea.

| jarduerak<br>*actividades* | arduraduna-agenteak<br>*responsable y agentes* | denboralizazioa<br>*temporalización* | baliabideak<br>*recursos* | Jarraipen/ Lorpenaren adierazleak<br>*Indicadores de proceso y de logro* |
|---|---|---|---|---|
